NAFARROAKO TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA

(Oinarri Teknikoak, Hirugarren Mailan)

Txapelketaren antolaketarako datuak

1.- Kudeaketa tasa: 35 euro ordaindu beharko du talde bakoitzak.

2.- 2026ko urriaren 24a baino lehen ordaindu behar da (hau da, hirugarren txanda baino lehen). Bestela, taldea kanporatua izan daiteke.

3.- Jokatzeko tokia etxeko taldearen lokala izanen da. Azkeneko txandan maila guztietarako egoitza bakarra izanen da, Iruña Park Hotelean (Iruñea).

4.- Talde kopuruaren araberako sistemarik egokiena Torneoko zuzendariak erabakiko du. Talde asko badira, Sistema Suitzar Herbeheretarra izanen da; talde gutxi badira, Liga sistema; beste kasuetan, sistema alternatiboa edo mistoa izanen da.

5.- Partida osatzeko 60 minutu izanen dira, gehi 30 segundo jokaldiko.

6.- Lau mahaitan jokatuko dira neurketak. Etxeko taldeak zuriekin jokatuko du lehenengo mahaian, beltzekin bigarrenean eta horrela koloreak trukatuta mahai guztietan.

7.- Ohorezko Mailarako, Lehenengorako edo Bigarrenerako sailkatuta ez dauden talde guztiek osatuko dute (Bigarren Mailatik jaitsitako taldeak barne).

8.- Txapelketarako aurreikusitako programazioa:

Talde parte hartzaileen zerrenda argitaratzea: 2026-10-05, 13:00etan.
Zozketa: 2026-10-06, 13:00etan.
Taldeetako jokalarien zerrendak argitaratzea: 2026-10-07, 14:00etan.
Lehenengo txanda: 2026-10-10, 16:30ean.
Bigarren txanda: 2026-10-17, 16:30ean.
Hirugarren txanda: 2026-10-24, 16:30ean.
Laugarren txanda: 2025-10-31, 16:30ean.
Bosgarren txanda: 2026-11-07, 16:30ean.
Seigarren txanda: 2026-11-14, 16:30ean.
Zazpigarren txanda, egoitza bakarra: 2026-11-21, 16:30ean.
Sailkapenak argitaratzea: 2026-11-24, 14:00etan.

Igoerak eta jaitsierak

9.- Bigarren Mailara igoko da hobekien sailkatutako bi taldeak, hor klub bereko beste bi talde ez badira.

10.- Bigarren Mailan azken bi tokietan sailkatutako taldeak Hirugarren Mailara jaitsiko dira.

11.- Laugarren Maila horrela osatuko litzateke, hurrengo denboraldirako sortzea Asanbladak onartuko balu: Hirugarren Mailan aurten 16 talde edo gehiago izanez gero, bederatzigarrenetik azkeneraino jaitsiko lirateke.

Torneoko zuzendaria: Mikel Razkin Fraile.

2026-09-20.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.